2017ko SPKLko 145. artikuluari jarraikiz askotariko esleipen-irizpideak erabiltzen badira, B artxibo elektronikoan lizitatzaileek balio-judizio baten bitartez neurtu behar diren irizpideen arabera baloratu beharreko dokumentazioa sartu behar dute.

Ondorioz, artxibo elektroniko honetan 3. eranskina sartuko da.

B artxibo elektronikoan ezin da, inola ere, C artxibo elektronikoari dagokion agiririk sartu.

2.- Archivo electrónico B

TÍTULO: Documentación relativa a criterios evaluables mediante juicio de valor.

Contenido

Cuando conforme al artículo 145 de la LCSP 2017 se utilicen una pluralidad de criterios de adjudicación, en el archivo electrónico B, los licitadores incluirán la documentación que deba ser valorada conforme a los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor.

En consecuencia, se incluirán en este archivo electrónico el anexo 3

En ningún caso podrá incluirse, en este archivo electrónico B documentos propios del archivo electrónico C.

3. C *artxibo elektronikoa*

IZENBURUA: Eskaintza ekonomikoa eta formula automatikoekin ebaluatu daitezkeen irizpideei dagokien dokumentazioa

Edukia

3.- Archivo electrónico C

TÍTULO: Oferta económica y documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas automáticas.

Contenido

C artxibo elektronikoan sartu behar dira, batetik, eskaintza ekonomikoa; eta bestetik, formula automatikoekin ebaluatu daitezkeen irizpideei dagokien gainerako dokumentazioa.

Eskaintza ekonomikoa eta formula automatikoen bidez ebalua daitezkeen irizpideak agiri honen 2 eta 4. eranskinetan jasotako ereduen arabera egingo dira.

Eskaintza ekonomikoa karaktere argiekin edo makinaz idatzita aurkeztu behar da. Beraz, toki-erakundeak eskaintza aintzat hartzeko oinarrizkotzat jotzen duen edozer argi eta garbi ulertzeko hutsik, akatsik edo ezabaketarik badu, eskaintza ez da onartuko.

En este archivo electrónico C se incluirá la oferta económica y la restante documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas automáticas.

La oferta económica, así como los criterios evaluables mediante fórmulas automáticas se realizarán conforme a los modelos que se adjuntan como ANEXO 2 y ANEXO 4 de este Pliego.

La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.

Erreferentzia teknikoak

Baldintza teknikoen agiriarekin bat etorriz, proposamenek eskatutako espezifikazio teknikoak betetzen dituztela baina baloratu behar ez direla egiaztatzeko beste dokumentu batzuk sartu behar direnean, B artxibo elektronikoan sartuko da, nahitaez aurkeztu behar direnean, eta, bestela, C artxibo elektronikoan.

Referencias técnicas

Cuando conforme al pliego de prescripciones técnicas deban incluirse otros documentos en orden a permitir verificar que las proposiciones cumplen con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no sean objeto de valoración, ésta se incluirá en el archivo electrónico B cuando su presentación sea obligatoria, y en otro caso en el archivo electrónico C.

16. klausula. Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaiko burua Udalbatzako kide edo funtzionario bat izango da, eta kideak honako hauek: idazkaria edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoa eskaintzeko zeregina duen organoko titularra; kontu-hartzailea edo, hala badagokio, arlo ekonomikoa eta aurrekontua kontrolatzeko zeregina duen organoko titularra; eta kontratazio-organoak izendatutako Udalbatzaren zerbitzura dauden karrerako funtzionario edo lan-kontratudun langileak, edo Udalbatzako kide hautetsiak, betiere guztira hiru baino gutxiago.

Cláusula 16.- Mesa de Contratación

La Mesa de contratación estará presidida por un miembro de la Corporación o un funcionario de la misma, y formarán parte de ella, como vocales, el Secretario o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuida la función de asesoramiento jurídico, y el Interventor, o, en su caso, el titular del órgano que tenga atribuidas la función de control económico-presupuestario, así como aquellos otros que se designen por el órgano de contratación entre el personal funcionario de carrera o personal laboral al servicio de la

Corporación, o miembros electos de la misma, sin que su número, en total, sea inferior a tres.

Kide hautetsien kopuruak ezin du izan kontratazio-mahaiko kide-kopuruaren heren bat baino handiagoa.

Los miembros electos no podrán suponer más de un tercio del total de miembros de la misma.

Idazkari-lanak Udalbatzako funtzionario batek egingo ditu.

Actuará como secretario un funcionario de la Corporación.

Mahaiaren osaera kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

La composición de la Mesa se publicará en el perfil de contratante.

Kontratazio-mahaiak kalifikatuko ditu aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak eta a artxibo elektronikoan jasotako erantzukizunpeko adierazpena.

La Mesa de contratación calificará la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos y la declaración responsable incluida en el archivo electrónico A.

Adierazpena ez aurkeztuz gero edo aurkeztutakoa behar bezala beteta ez badago, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak zuzentzea eska dezake, eta lizitatzaileek zuzentzeko aukera izango dute. Horretarako, lizitatzaileek hiru egun baliodun izango dituzte, zuzentzeko eskaria jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Adierazpena epe horretan ez zuzenduz gero, kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak ulertuko du lizitatzaileak uko egin diola eskaintza aurkezteari.

Será objeto de subsanación por los licitadores la declaración responsable, a requerimiento del órgano o la mesa de contratación, cuando no se hubiera presentado, o no estuviera adecuadamente cumplimentada la presentada. En tales casos se conferirá al licitador o licitadores afectados un plazo de tres días hábiles, a contar desde el siguiente al de recepción del requerimiento de subsanación. De no subsanar en plazo lo requerido, el órgano o la mesa de contratación entenderán que el licitador desiste de su oferta.

Enpresek aurreko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aztertu ondoren, kontratazio-mahaiak aktak egingo ditu, zer eskaintza onartu eta baztertu dituen adierazteko, eta akta horiek kontratatzailearen profilean argitaratuko dira; profil hori iragarki-ohol moduko bat izango da. Hala eta guztiz ere, lizitatzaileek jakinarazpena jasoko dute.

Las actas de la Mesa de contratación de calificación la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos en las que se recoja la admisión y exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante, que actuará como tablón de anuncios, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a los licitadores afectados.

Lizitatzaileren baten eskaintza baztertuz gero, eta kontratazio-mahaiak egingo duen ekitaldi publikoan enpresaren ordezkariren bat badago, hantxe jakinaraziko zaio; bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko

El acto de exclusión de un licitador podrá ser notificado a éste en el acto público que celebre la Mesa, si fuera posible por encontrarse algún representante de la empresa y, en su defecto, con arreglo a los restantes procedimientos establecidos en los artículos 40 y siguientes de la

urriaren 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako prozeduren arabera jasoko du jakinarazpena.

2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarriaren arabera, jakinarazpenak egin daitezke egokitutako helbide elektronikoaren bitartez edo agerraldi elektronikoa medio. Jakinarazpenetik kontatzeko epeak jakinarazpena bidalitako egunetik edo, agerraldi elektronikoa bada, jakinarazpenaren abisutik kontatuko dira, baldin eta jakinarazi beharreko ekintza egun berean argitaratu bada kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean. Bestela, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatuko dira.

Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas.

De conformidad con la Disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017, las notificaciones se podrán realizar mediante dirección electrónica habilitada o mediante comparecencia electrónica. Los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil de contratante del órgano de contratación. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado.

17. klausula. Eskaintzak baloratzea

Proposamenak formulen bitartez kuantifikatu daitezkeen irizpideen arabera ebaluatu baino lehen, formulen bitartez kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideen arabera ebaluatuko dira eta hori egin izana idatziz jasoko da.

Aurreko ebaluazio hori formulak aplikatuz baloratu daitezkeen elementuak dituen artxibo elektronikoa irekitzeko ekitaldian emango da ezagutzera.

Proposamenak baloratzeko prezioa ez beste irizpide batzuk kontuan hartuz gero, eskaintzek agiriko zehazpen teknikoak betetzen dituztela egiaztatze aldera, organo eskudunak egoki iritzitako txosten teknikoak eska ditzake, proposamena egin aurretik.

Cláusula 17.- Valoración de las ofertas

La evaluación de las ofertas conforme a los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas se realizará tras efectuar previamente la de aquellos otros criterios en que no concurra esta circunstancia, dejándose constancia documental de ello.

La citada evaluación previa se hará pública en el acto en el que se proceda a la apertura del archivo electrónico que contenga los elementos de la oferta que se valoraran mediante la mera aplicación de fórmulas.

Cuando para la valoración de las proposiciones se tengan en cuenta criterios distintos al del precio, y para verificar que las ofertas cumplen con las especificaciones técnicas del pliego el órgano competente podrá solicitar, antes de formular su propuesta, cuantos informes técnicos considere precisos.

Kontratazio-mahaiek, halaber, kontratuaren xedearekin zerikusia duten gaietan ezaupide egiaztatuak dituzten teknikari edo aditu independenteen aholkua eska dezake.

Laguntza hori kontratazio-organoak baimenduko du eta espedientean berariaz jasoko da, teknikari edo adituen izen-abizenak, prestakuntza eta esperientzia profesionala zehaztuta.

Aipaturiko 9. atalean zehaztuko da, salbu prezioa bakarrik aintzat hartzen bada, balorazio-irizpide bakoitzari zer haztapen egokitu zaion; haztapen hori zabaltasun maximo egokiko balio-zerrenda bat zehaztuz adierazi ahalko da.

Atal horretan jasoko da, halaber, esleipen-prozedurak fase bat baino gehiago badu, zer fasetan aplikatuko den irizpide bakoitza. Alde horretatik, hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko, irizpide kualitatiboetako puntuazioaren baturak puntuazio osoaren ehuneko 50 izan behar du gutxienez.

Hautatutako irizpideak ezin badira neurtu behar bezala justifikatutako arrazoi objektiboengatik, irizpide horiek garrantzi gehien duenetik garrantzi gutxien duenera zenbakituko dira.

18. klausula. Proposamenak aztertzea, esleipena proposatzea eta ezagutzera ematea

Kontratazio-mahaiak proposamenak ireki, esleipenduna aukeratzeko aplikatu beharreko irizpideei jarraikiz aztertu eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena egingo dio.

Las Mesas de contratación podrán, asimismo, solicitar el asesoramiento de técnicos o expertos independientes con conocimientos acreditados en las materias relacionadas con el objeto del contrato.

Dicha asistencia será autorizada por el órgano de contratación y deberá ser reflejada expresamente en el expediente, con referencia a las identidades de los técnicos o expertos asistentes, su formación y su experiencia profesional.

El citado apartado 9 precisará, salvo cuando se tome en consideración el precio exclusivamente, la ponderación relativa atribuida a cada uno de los criterios de valoración, que podrá expresarse fijando una banda de valores con una amplitud máxima adecuada.

Igualmente señalará cuando el procedimiento de adjudicación se articule en varias fases, en cuales de ellas se irán aplicando los distintos criterios, estableciendo un umbral mínimo del 50 por ciento de la puntuación en el conjunto de los criterios cualitativos para continuar en el proceso selectivo.

Cuando, por razones objetivas debidamente justificadas, no sea posible ponderar los criterios elegidos, éstos se enumerarán por orden decreciente de importancia.

Cláusula 18. Examen de las proposiciones, propuesta de adjudicación y publicidad

La Mesa de Contratación procederá a la apertura y examen de las proposiciones, formulando la correspondiente propuesta de adjudicación al órgano de contratación, una vez ponderados los criterios que deban aplicarse para efectuar la selección del adjudicatario.

La apertura de las proposiciones deberá efectuarse en el plazo máximo de veinte días

Proposamenak gehienez hogei egunen buruan ireki behar dira, aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita.

contado desde la fecha de finalización del plazo para presentar las mismas.

Proposamena artxibo elektroniko batean baino gehiagoan badago eta artxibo elektroniko horiek ekitaldi bereizietan ireki behar badira, proposamenari dagokion lehen artxibo elektroniko irekitzen denean joko da aipaturiko epea amaitutzat.

Si la proposición se contiene en más de un archivo electrónico, que deban abrirse en varios actos independientes, el plazo máximo señalado se entenderá cumplido cuando se haya abierto, dentro del mismo, el primero de los archivos electrónicos que componen la proposición.

Eskaintza ekonomikoa ekitaldi publikoan irekiko da.

La apertura de la oferta económica se realizará en acto público.

Proposamenak baloratzeko prezioa ez beste irizpide batzuk kontuan hartuz gero, organo eskudunak egoki iritzitako txosten teknikoak eska ditzake, proposamena egin aurretik. Halaber, txosten horiek eskatu daitezke eskaintzek agiriko zehazpen teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Cuando para la valoración de las proposiciones hayan de tenerse en cuenta criterios distintos al del precio, el órgano competente para ello podrá solicitar, antes de formular su propuesta, cuantos informes técnicos considere precisos. Igualmente, podrán solicitarse estos informes cuando sea necesario verificar que las ofertas cumplen con las especificaciones técnicas del pliego.

Gizarte- eta ingurumen-irizpideak betetzen dituztela egiaztatze aldera, txostenak eska diezazkiete, halaber, prestazioaren hartzaile diren erabiltzaileen gizarte-erakundeei, kontratuaren xede den jarduera-arloetan ordezkari diren erakundeei, sindikatu-erakundeei, genero-berdintasuna defendatzen duten erakundeei eta bestelako erakundeei.

También se podrán requerir informes a las organizaciones sociales de usuarios destinatarios de la prestación, a las organizaciones representativas del ámbito de actividad al que corresponda el objeto del contrato, a las organizaciones sindicales, a las organizaciones que defiendan la igualdad de género y a otras organizaciones para la verificación de las consideraciones sociales y ambientales.

Proposatutako lizitatzaileak ez du haren aldeko eskubiderik izango toki-erakundearen aurrean. Dena den, kontratazio-organoak kontratua ez badio kontratazio-mahaiak proposatutako lizitatzaileari esleitzen, erabaki hori hartzeko zer arrazoi dituen azaldu beharko du.

La propuesta de adjudicación no crea derecho alguno en favor del licitador propuesto frente a la Entidad Local. No obstante, cuando el órgano de contratación no adjudique el contrato de acuerdo con la propuesta formulada deberá motivar su decisión.

Kontratazio-mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak kontratazio-prozeduran kolusio-jarrerak antzematen baditu (zantzu oinarridunak eduki behar ditu), lehia babesteko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1. artikuluan jasotako moduan,

Si en el ejercicio de sus funciones la mesa de contratación, o en su defecto el órgano de contratación, tuviera indicios fundados de conductas colusorias en el procedimiento de contratación, en el sentido definido en el artículo 1

kontratua esleitu aurretik jakinaren gainean jarriko du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoan arlo horretan eskumena duen agintaritza, prozesu sumarisimo baten bitartez jarrera horien gaineko iritzia eman dezan. Zantzu horien berri emanez gero, kontratazio-prozedura eten egingo da. Jakinarazpena kontratazio-mahaiak egiten badu, kontratazio-organoa jakinaren gainean jarri behar du.

de la Ley 15/2007 de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, los trasladará con carácter previo a la adjudicación del contrato a la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia o, en su caso, a la autoridad de competencia autonómica correspondiente, a efectos de que a través de un procedimiento sumarísimo se pronuncie sobre aquellos. La remisión de dichos indicios tendrá efectos suspensivos en el procedimiento de contratación. Si la remisión la realiza la Mesa de Contratación dará cuenta de ello al órgano de contratación.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, lehenik, parte hartu duen lizitatzaile-kopurua eta lizitatzaileen izen-abizenak; bigarrenik, kontratazio-mahaiak esleipen-prozeduraren gainean egindako akta guztiak; hirugarrenik, balio-judizio baten bitartez kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideen balorazio-txostena, eskaintza guztiena; laugarrenik, hala badagokio, 2017ko SPKLko 149.4 artikuluan jasotako ustezko anormaltasunen bat duten eskaintzen gaineko txostenak; eta, betiere, kontratua esleitzeko erabakia.

Serán objeto de publicación en el Perfil del Contratante el número e identidad de los licitadores participantes en el procedimiento, así como todas las actas de la mesa de contratación relativas al procedimiento de adjudicación, el informe de valoración de los criterios de adjudicación cuantificables mediante un juicio de valor de cada una de las ofertas, en su caso, los informes sobre las ofertas incursas en presunción de anormalidad a que se refiere el artículo 149.4 de la LCSP 2017 y, en todo caso, la resolución de adjudicación del contrato.

19. klausula. Gutxiegizko eskaintzak

Cláusula 19.- Ofertas anormalmente bajas

Kontratuaren ezaugarrien koadroko **9. atalean** jasotako parametro objektiboak betetzen dituzten eskaintzak ustez anormaltzat joko dira: 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, 85. art.

“85. artikulua. Eskaintza arin edo neurriz kanpokoak balioesteko irizpideak.

Hasiera batean, baldintza hauek betetzen dituzten eskaintzak hartuko dira arin edo neurriz kanpokotzat:

Se considerarán incursas en presunción de anormalidad las ofertas que cumplan los parámetros objetivos que contempla el **apartado 9** del Cuadro de Características del Contrato: art. 85 del RD 1098/2001, de 12 de octubre.

“Artículo 85 Criterios para apreciar las ofertas desproporcionadas o temerarias.

Se considerarán, en principio, desproporcionadas o temerarias las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos:

1. *Lizitatzaile bakarra aurkeztu bada, eskaintza lizitazioaren oinarrizko aurrekontua ken portzentajezko 25 unitate baino txikiagoa izatea*

2. *Bi lizitatzaile aurkeztu badira, beste eskaintza ken portzentajezko 20 unitate baino txikiagoa dena.*

3. *Hiru lizitatzaile aurkeztu badira, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa ken portzentajezko 10 unitate baino txikiagoak direnak. Dena den, batezbesteko hori kalkulatzeko, zenbateko handiena duen eskaintza baztertu egingo da, baldin eta batezbesteko hori gehi portzentajezko 10 unitate baino handiagoa bada. Halaber, batezbesteko hori ken portzentajezko 25 unitate baino txikiagoak diren eskaintzak neurriz kanpokotzat joko dira.*

4. *Lau lizitatzaile edo gehiago aurkeztu badira, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa ken portzentajezko 10 unitate baino txikiagoak direnak. Dena den, batezbesteko hori ken portzentajezko 10 unitate baino txikiagoa den eskaintzarik badago, eskaintza horiek alde batera utzi eta gainerakoekin batezbesteko berri bat kalkulatuko da. Betiere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batezbesteko berria zenbateko txikiena duten hiru eskaintzekin kalkulatuko da.*

5. *Salbuespenez, eta kontratuaren xedea eta merkatuaren egoera aintzat hartuta, kontratazio-organoak aurreko ataletan ezarritako portzentajeei herena ken diezaieke administrazio-baldintza partikularren agirian, egoki arrazoituta.*

6. *Eskaintzak neurriz kanpokotzat jotzeko, kontratazio-mahaiak enpresaren kaudimenaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko erlazioa har dezake aintzat."*

1. *Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales.*

2. *Cuando concurran dos licitadores, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta.*

3. *Cuando concurran tres licitadores, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales.*

4. *Cuando concurran cuatro o más licitadores, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media sólo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.*

5. *Excepcionalmente, y atendiendo al objeto del contrato y circunstancias del mercado, el órgano de contratación podrá motivadamente reducir en un tercio en el correspondiente pliego de cláusulas administrativas particulares los porcentajes establecidos en los apartados anteriores.*

6. *Para la valoración de las ofertas como desproporcionadas, la mesa de contratación podrá considerar la relación entre la solvencia de la empresa y la oferta presentada.*"

2017ko SPKLko 159.4.f artikuluaren arabera, puntuazio onena jaso duen lizitatzailearen

Conforme al artículo 159.4.f) de la LCSP 2017 cuando la oferta del licitador que haya

eskaintza gutxiegizkoa delako susmoa izanez gero, kontratazio-mahaiak, agiriko eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu eta kontratua puntuazio onena duen hautagaiari esleitzea proposatu baino lehen, 2017ko SPKLko 149. artikuluan zehaztutako prozedura izapidetuko du, dagokion zerbitzuko aholkularitza teknikoa eskatze aldera. Alde horretatik, lizitatzaileak **bost egun baliodunen** buruan justifikatu beharko du eskaintza, jakinarazpena bidalitako egunetik kontatzen hasita.

obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja la Mesa, previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, y realización de la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación, deberá tramitarse el procedimiento previsto en el artículo 149 de la LCSP 2017, en el que se solicitará el asesoramiento técnico del servicio correspondiente, si bien el plazo máximo para que justifique su oferta el licitador no podrá superar los **5 días hábiles** desde el envío de la correspondiente comunicación.

Betiere, kontratazio-organoek, azpikontratazioari buruzko araudia hausten dutelako edo ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko estatuko edo nazioarteko eskakizunak, indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialak barne, betetzen ez dituztelako eskaintzak gutxiegizkoak direla egiaztatzen badute, baztertu egingo dituzte.

En todo caso, los órganos de contratación rechazarán las ofertas si comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes.

Alde horretatik, lizitatzaileak proposaturiko prezio edo kostuak gutxiegizkoak direlako justifikazioa ez da baliozkotzat joko osatugabea bada edo ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomikotik desegokiak diren hipotesi edo jardunbideetan oinarrituta badago.

Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por el licitador cuando ésta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

Kontratua azkenean ustez gutxiegizko eskaintza aurkeztu duen enpresari esleitzen bazaio, kontratazio-organoak kontratua behar bezala, hau da, kontratatutako zerbitzuen kalitatea gutxitu gabe, gauzatzen dela zainduko du.

Cuando la empresa que hubiese estado incursa en presunción de anormalidad hubiera resultado adjudicataria del contrato, el órgano de contratación velará por la adecuada ejecución del contrato, sin que se produzca una merma en la calidad de servicios contratados.

20. klausula. Kontratua esleitu aurretik dokumentazioa aurkeztea

Cláusula 20.- Presentación de documentación con carácter previo a la adjudicación

Kontratazio-organoak proposamena onartu ondoren, dagokien zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote, 2017ko SPKLko 145. artikuluari jarraikiz,

Una vez aceptada la propuesta de la mesa por el órgano de contratación, los servicios correspondientes requerirán al licitador que haya presentado la mejor oferta de conformidad con el

erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa (2017ko SPKLko 141. artikuluko baldintzak) egiaztatzeko agiriak aurkeztea. Lizitatzaileak hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu egiaztagiriak, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

artículo 145 de la LCSP 2017, para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de las circunstancias reflejadas en la declaración responsable a las que se refiere el artículo 141 de la LCSP 2017.

Horrez gain, kontratuaren ezaugarrien koadroko 13. atalak hala eskatzen badu, lizitatzaileak kontratua egikaritzeko behar adina baliabide material eta giza baliabide jartzeko konpromisoa aurkeztu behar du.

Si así se exige en el apartado 13 del Cuadro de Características del Contrato deberá aportar el compromiso de dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios personales o materiales suficientes para ello.

Halaber, berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du, kontratua esleitzeari eta berdinketa hausteari buruzko 13. atalean zehaztuta dagoena.

Deberá aportar, igualmente la documentación acreditativa de los criterios de desempate, caso de que proceda, a los que se refiere la **Cláusula 13**. Criterios de adjudicación y de desempate.

Egiaztagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bitartez bidal daitezke, salbu kontratuaren ezaugarrien koadroko 9. atalak bestelakorik badio.

Los certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos, salvo que se establezca otra cosa en el **apartado 9** del Cuadro de Características del Contrato

Eskaria aipaturiko epean betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza atzera bota duenaren seinale izango da.

De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta.

Hori gertatuz gero, hurrengo lizitatzaileari (eskaintzan sailkatutako ordenan) agiri berberak eskatuko zaizkio.

En tal supuesto, se procederá a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

Kontratazio-organoak egiaztagiriak jaso eta hurrengo bost egun baliodunen buruan esleituko du kontratua.

El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación.

21. klausula. Behin betiko bermea

Cláusula 21.- Garantía definitiva

Ekonomikoki proposamenik onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren 100eko 5eko bermea jarri

El licitador que presente la oferta económicamente más ventajosa deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía de un 5 por

beharko du kontratazio-organoaren esku, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utziz.

100 del precio final ofertado por aquel, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

2017ko SPKLko 108. artikuluan aurreikusitako modu batean edo batzuetan jarri ahal izango da behin betiko berme hori.

La garantía definitiva podrá prestarse en alguna o algunas de las formas previstas en el artículo 108 de la LCSP 2017.

Behin betiko bermea jarri izana baliabide elektronikoen bitartez egiaztatu ahal izango da

La acreditación de la constitución de la garantía definitiva podrá hacerse mediante medios electrónicos.

Ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak esleipena egin aurretik agiriak aurkezteko emandako epearen barruan egiaztatu beharko du behin betiko bermea jarri izana.

La acreditación de la constitución de la garantía definitiva por el licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa deberá acreditar en el plazo conferido para la presentación de la documentación previa a la adjudicación.

Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratista horrek hura berriro jarri edo zabaldu egin beharko du, dagokion zenbatekoan, hori gauzatzen den egunetik **hamabost eguneko** epearen barruan, eta horrela egiten ez badu, ezeztatzeko arrazoi izango da.

Cuando se hagan efectivas sobre la garantía definitiva las penalidades o indemnizaciones exigibles al contratista, este deberá reponer o ampliar aquélla, en la cuantía que corresponda, en el plazo de **quince días** desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.

Kontratua aldatu izanaren ondorioz, horren prezioak ere aldaketaren bat izaten baldin badu, berregokitu egin beharko da bermea, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan, aldatu izanaren erabakia enpresaburuari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta **hamabost eguneko** epearen barruan.

Cuando, como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de **quince días** contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación.

Ondorio horiei begira, kontratuko prezioen berrikuspena onestearen ondorioz gertatzen diren prezio-aldaketak ez dira kontuan hartuko.

A estos efectos no se considerarán las variaciones de precio que se produzcan como consecuencia de la aprobación de la revisión de precios del contrato.

Behin betiko bermeak 2017ko SPKLko 110. artikuluak aipatzen dituen kontzeptuei erantzungo die.

La garantía definitiva responderá de los conceptos a los que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017.

22. klausula. Esleipena eta jakinarazpena

Lizitatzaileei esleipenaren ebazpen arrazoitua jakinaraziko zaie, eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Esleipenaren prozeduran interesa dutenek esleipen-erabakiaren aurka behar hainbat arrazoitutako helegitea jarri ahal izateko beharrezko informazioa eskaini beharko dute bai jakinarazpenak eta bai argitalpenak ere, eta horren barruan, edonola ere, ondorengo informazioa azalduko da:

- Esleipen-prozeduratik kanporatutako lizitatzaileei dagokienez, horien eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak, baliokidetasun-ezari buruzko erabakiaren arrazoiak edo obrak errendimendu-betebeharrei edo eskakizun funtzionalei egokitzen ez zaizkiela dioen erabakiarenak; eta lizitatzaile desberdinei izendatutako balioespenen xehakapen bat, esleipenduna ere barne.

- Horrez gain, esleipendunaren izena eta esleipendunaren proposamenak dituen ezaugarriak eta abantailak, eskaintzak onartu zaizkien gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoen gainetik eskaintza hori lehentasunez hautatua izatea erabakitzea eragin dutenak.

Baliabide elektronikoen bidez egingo da jakinarazpena, 2017ko SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz.

Cláusula 22.- Adjudicación y notificación

La resolución motivada de adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.

La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y entre ella en todo caso deberá figurar la siguiente:

- Con respecto a los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, los motivos por los que no se haya admitido su oferta, los motivos de la decisión de no equivalencia o de la decisión de que las obras no se ajustan a los requisitos de rendimiento o a las exigencias funcionales; y un desglose de las valoraciones asignadas a los distintos licitadores, incluyendo al adjudicatario.

- En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia respecto de las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas.

La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017.

23. klausula. Prozeduran ordeztea

Prozedura izapidetzerakoan eta kontratua formalizatu aurretik enpresak beste batekin bat egiten badu, zatitzen bada edo enpresa-ondarea

Cláusula 23.- Sucesión en el procedimiento

Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la formalización del contrato se produce una operación de fusión, escisión, transmisión del

edo jardueraren adar bat eskualdatzen badu, enpresa lizitatzaileak edo hautagaiak prozeduran duen tokia sozietate xurgatzaileak, bat egitetik sortzen denak, zatiketaren onuradunak edo enpresa-ondarea edo jarduera-adarra eskuratu duenak hartuko du. Hori, betiere, ahalmen-baldintzak betetzen baditu eta ez badu kontratatzeko debekurik, eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu, administrazio-baldintza partikularren agiri honetan esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzen arabera.

patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.

24. klausula. Kontratua formalizatzea

Cláusula 24.- Formalización del contrato

Formalizatzea

Formalización

Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da, zehatz-mehatz beteko ditu lizitazioaren baldintzak eta agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotan onartua izateko. Dena den, kontratistak kontratua eskritura publiko izatea eska dezake eta gastuak haren kontura izango dira. Kontratua formalizatzeko agirian ezin da inola ere jaso esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.

El contrato se formalizará en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.

2017ko SPKLko 44. artikuluarekin bat etorriz kontratu horri kontratazio alorreko helegite berezi bat jarri dakiokeenean, formalizazioa ezingo da egin esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei igortzen zaienetik hamabost lanegun igaro baino lehen.

Cuando el contrato sea susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44 de la LCSP 2017, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores.

Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek esleipendunari eskatuko diote kontratu hori bost eguneko epearen barruan gauzatu dezala errekerimendu hori jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, baldin eta, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro

Los servicios dependientes del órgano de contratación requerirán al adjudicatario para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior

ondoren, kontratuaren formalizazioa esekita uztea berarekin dakarren helegiterik jarri ez bada. Modu berean jokatuko da helegitea ebazteko eskumena duen organoak esekipena altxatzen duenean.

sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

Gainerako kasuetan, gehienez ere hamabost egun baliodunen barruan formalizatu beharko da kontratua, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren berri eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

Esleipendunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada adierazitako epe horretan formalizatzen, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ kanpo), zigor gisa, eta zenbateko hori behin betiko bermetik hartuko da lehenik, berme hori jarri bada, eta 2017ko SPKLko 150. artikuluarekin bat etorriz kontratatzeko debekua ezartzeko arrazoitzat hartu ahal izango da.

Cuando por causas imputables al adjudicatario no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de su consideración como causa de prohibición para contratar conforme al artículo 150 de la LCSP 2017.

Hori gertatuz gero, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, hark, lehen aipaturiko epeen barruan, aldez aurreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren.

En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egotzi badakizkioke, kontratistari kalte-ordaina emango zaio, berandutze horrek sortu dizkion kalte-galerengatik.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

Ezingo da kontratua gauzatzen hasi, hori formalizatu baino lehen.

No podrá procederse a la ejecución del contrato con carácter previo a su formalización.

Kontratua formalizatu izanaren iragarkia

Anuncio de formalización

Kontratua formalizatzeko agiria eta kontratua bera kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, gehienez ere hamabost egunen barruan, kontratua burututako egunetik kontatzen hasita.

La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante del órgano de contratación en un

plazo no superior a **quince días** tras el perfeccionamiento del contrato.

Kontratua formalizatu izanaren berri emateko iragarkiak 2017ko SPKLko III. Eranskinean jasotako informazioa edukiko du.

El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP 2017

Egoki iritziz gero, kontratua egin izanari buruzko datu batzuk ez argitaratzea erabaki daiteke eta hori espedientean arrazoitu beharko da. Ez argitaratzeko arrazoiak hauek izan daitezke: informazio hori ezagutzera emateak arau bat bete dadila eragoztea, interes publikoaren kontrakoa izatea, enpresa publiko edo pribatuen legezko interes komertzialei edo haien arteko lehia zintzoari kalte egitea, kontratua isilpekoa edo ezkutukoa izatea edo hori gauzatzeko segurtasun-neurri bereziak hartu behar izatea, indarrean dagoen legeriari jarraiki, eta azkenik, estatuaren funtsezko segurtasun-interesak babestu behar izatea, 2017ko SPKLko 19. artikuluko 2. ataleko c) letran zehaztutakoaren arabera.

Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017.

Horrelakoetan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aipaturiko Gardentasunaren eta Gobernantza Onaren Kontseiluari txostena egitea eskatu behar zaio, 2017ko SPKLko 154. artikuluari jarraiki.

En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP 2017.

KONTRATUA GAUZATZEA

EJECUCIÓN DEL CONTRATO

25. klausula. Kontratuaren prezioa ordaintzea

Cláusula 25.- Pago del precio del contrato

Obrak amaitzen direnean horiei harrera emateko ekitaldira, 2017ko SPKLko 243. artikuluan ezarritako ondorioetarako, Toki Erakundeak izendatutako fakultatibo bat, obra-zuzendaritzako fakultatibo arduraduna eta, egoki ikusiz gero, bere fakultatiboaren laguntza izango duen kontratista joango dira.

A la recepción de las obras a su terminación y a los efectos establecidos en el artículo 243 de la LCSP 2017, concurrirá un facultativo designado por la Entidad Local, el facultativo encargado de la dirección de las obras y el contratista asistido, si lo estima oportuno, de su facultativo.

Obrak egoera onean badaude eta aurreikusitako jarraibideekin bat badatoz, Administrazio kontratatzaileak izendatutako funtzionario teknikoak eta administrazio horren ordezkariak, obra horiek jasotzat joko dituzte, dagokion akta idatziko da eta une horretantxe berme-epea hasiko da.

Si se encuentran las obras en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, el funcionario técnico designado por la Administración contratante y representante de ésta las dará por recibidas, levantándose la correspondiente acta y comenzando entonces el plazo de garantía.

Obra horiek harrera emateko egoeran ez baldin badaude, horrela agerraraziko da aktan, eta obren Zuzendariak hautemandako akatsak adieraziko ditu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, akats horiek zuzentzeko epe bat finkatzearekin batera. Epe hori igaro ondoren kontratistak ez badu zuzenketa hori egin, beste epe berri luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo bestela, kontratua bete gabetzat jo.

Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas se hará constar así en el acta y el director de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo el contratista no lo hubiere efectuado, podrá concedérsele otro nuevo plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato.

Nolanahi ere, obrek xede praktikorik ez dutenean, esate baterako, emaitzarik lortu ez den zundaketetan edo prospekzioetan, edo kontserbazio-lanaren kontzeptutik haratago doazen beste lan batzuk egitea eskatzen dutenetan –dragatzeko lanetan esate baterako– ez da berme-eperik eskatuko. Kontratuan ezarritakoarekin bat etorriz, erabilera publikorako xedatu ahal izango diren faseen arabera egin daitezkeen obra-zatietan, horiei harrera partziala eman ahal izango zaie.

No obstante, en aquellas obras cuya perduración no tenga finalidad práctica como las de sondeos y prospecciones que hayan resultado infructuosas o que por su naturaleza exijan trabajos que excedan el concepto de mera conservación como los de dragados no se exigirá plazo de garantía.
Podrán ser objeto de recepción parcial aquellas partes de obra susceptibles de ser ejecutadas por fases que puedan ser entregadas al uso público, según lo establecido en el contrato.

Espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik, kontratazio-organoak erabakitzen badu obrak benetan okupatzea edo horiek erabilera

Siempre que por razones excepcionales de interés público debidamente motivadas en el expediente el órgano de contratación acuerde la ocupación efectiva de las obras o su puesta en servicio para

publikoaren zerbitzura jartzea, obra horiei harrera emateko ekitaldi formala egin ez arren, inguruabar horiek gertatzen direnetik obrei harrera emateko ekitaldiaren berezko eragin eta ondorioak izango ditu, araudiak ezartzen diren baldintzetan.

el uso público, aun sin el cumplimiento del acto formal de recepción, desde que concurran dichas circunstancias se producirán los efectos y consecuencias propios del acto de recepción de las obras y en los términos en que reglamentariamente se establezcan.

Harrera ematen zaionetik kontatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan, burututako obren amaierako ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta Lege honetan aurreikusitako epean ordainduko zaio kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura.

Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada al contratista a cuenta de la liquidación del contrato en el plazo previsto en esta Ley.

50. klausula. Bermearen epea

Cláusula 50.- Plazo de garantía

Kontratuaren Ezaugarrien Taulako **21. atalean** finkatzen da berme-epea, obraren izaera eta zailtasuna kontuan izanik, eta ezin daiteke urtebete baino epe laburragoa izan, kasu berezietan izan ezik, eta esleipendunak epe hori hobetu ahal izango du.

El plazo de garantía se establece en el **apartado 21** del Cuadro de Características del Contrato atendiendo a la naturaleza y complejidad de la obra y no podrá ser inferior a un año salvo casos especiales, siendo en su caso susceptible de ser mejorado por el adjudicatario.

51. klausula. Bermea itzultzea eta obren likidazioa egitea

Cláusula 51.- Devolución de la garantía y liquidación de las obras

Berme-epea bete aurreko hamabost eguneko epearen barruan, obrako zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta, txosten bat idatziko du obren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa baldin bada, kontratista erantzukizun guztietatik salbuetsita geratuko da, eta bermea itzultzeari edo kitatzeari ekingo zaio, kontratuaren likidazioa egingo da eta, hala egokituz gero, gauzatzeko dauden obligazioak ordainduko dira, eta hori hirurogei eguneko epearen barruan egin beharko da.

Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, el director facultativo de la obra, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras. Si este fuera favorable, el contratista quedará exonerado de toda responsabilidad, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes que deberá efectuarse en el plazo de sesenta días.

Txosten hori aldekoa ez bada eta hautemandako akatsak obra burutzean egindako hutsegiteen ondorio badira, eta ez eraikitakoa erabiltzearen ondorio, bermearen epean, zuzendari

En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de la obra y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía, el

fakultatiboak jarraibide egokiak emango dizkio kontratistari eraikitakoa behar bezala konpontzeko, eta horretarako emango dion epearen barruan obren kontserbazio-lanen ardura izaten jarraituko du, bermearen epea luzatzeagatik inolako diru-zenbatekorik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

director facultativo procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía.

Bermea ez da itzuliko eta iraungiko harik eta bermearen epea amaitu eta dagokion kontratua behar bezala bete arte, edo bertan behera gera dadila erabaki arte, kontratistaren errurik gabe.

La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato, o hasta que se declare la resolución de este sin culpa del contratista.

Kontratuaren likidazioa onartu eta bermearen epea igaro ondoren, erantzukizunik ez baldin badago, jarritako bermea itzuli egingo da edo kauzio-abal edo -asegurua baliogabetu egingo da.

Aprobada la liquidación del contrato y transcurrido el plazo de garantía, si no resultaren responsabilidades se devolverá la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución.

Bermearen epea amaitzen denetik bi hilabeteko epearen barruan, itzultzeko erabakia onetsi eta jakinarazi egin beharko zaio interesatuari.

El acuerdo de devolución deberá adoptarse y notificarse al interesado en el plazo de dos meses desde la finalización del plazo de garantía.

Epe hori igaro ondoren, Administrazioak zor duen diru-zenbatekoa ordaindu beharko dio kontratistari, aipatutako epe hori iraungitzen denetik bermea itzultzen den eguneraino igarotako epeari dagokion diruaren legezko interesarekin gehituta, baldin eta Administrazioari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik ordaindu ez bada.

Transcurrido el mismo, la Administración deberá abonar al contratista la cantidad adeudada incrementada con el interés legal del dinero correspondiente al período transcurrido desde el vencimiento del citado plazo hasta la fecha de la devolución de la garantía, si ésta no se hubiera hecho efectiva por causa imputable a la Entidad Local.

Harrera partziala ematen zaion kasuan, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzea edo kitatzea bakarrik eskatu ahal izango du, baldintza administratibo berezien orrietan berariaz horrela baimentzen den kasuan.

En el supuesto de recepción parcial sólo podrá el contratista solicitar la devolución o cancelación de la parte proporcional de la garantía cuando así se autorice expresamente en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Kontratuak lagatzen diren kasuetan, ez da itzuliko edo baliogabetuko lagatzaileak jarritako bermea, harik eta lagapen-hartzaileak berea formalki jartzen duen arte.

En los casos de cesión de contratos no se procederá a la devolución o cancelación de la garantía prestada por el cedente hasta que se halle formalmente constituida la del cesionario.

Baldin eta, kontratua amaitzen den egunetik urtebete igaro eta bermearen epea iraungi

Transcurrido un año desde la fecha de terminación del contrato, y vencido el plazo de garantía, sin

ondoren, kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik harrera formalik egin ez bada eta likidazioa gauzatu ez bada, bermeak itzuli edo kitatu egingo dira lehenbailehen, 2017ko SPKLko 110. artikuluarekin bat etorriz berme horri atxikita dauden erantzukizunak argitu ondoren.

que la recepción formal y la liquidación hubiesen tenido lugar por causas no imputables al contratista, se procederá, sin más demora, a la devolución o cancelación de las garantías una vez depuradas las responsabilidades a que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017.

52. klausula. Erantzukizuna ezkutuko akatsengatik

Kontratistak kontratua ez betetzeagatik, ezkutuko eraikuntza-akatsak izateagatik obra berme-aldia amaitu ondoren bere eginkizunarekin bateraezinak diren hondamen larriak jasaten baditu edo obra hondatuta geratzen bada, kontratistaren ardura izango da harrera ematen zaionetik kontatzen hasi eta hamabost urteko epean sortzen diren edo agertzen diren kalte eta galerei erantzutea.

Halaber, epe horren barruan, zimenduei, euskarriei, habeei, forjatuei, karga-hormei edo egiturako beste elementu batzuei eragiten dieten akatsengatik obran sortutako kalte materialen gaineko erantzukizuna izango du, baldin eta eraikinaren erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna zuzenean arriskuan jartzen badute, obrari aitzakiarik gabe harrera ematen zaion egunetik hasita, edo horiek konpontzen direnetik.

Akats horietatik eratorri daitezkeen kalte materialen gaineko erantzukizuna eskatzeko ekintzak bi urteko epean preskribatuko dira, kalte horiek sortzen edo agertzen diren egunetik kontatzen hasita, kontratua ez betetzeagatik erantzukizunak eskatzeko abian jar litezkeen ekintzen kaltetan izan gabe.

Hamabost urteko epe hori amaitu ondoren, bestelako kalte edo galerarik gertatu ez bada, kontratistaren erantzukizuna guztiz iraungita geratuko da.

Cláusula 52.- Responsabilidad por vicios ocultos

Si la obra se arruina o sufre deterioros graves incompatibles con su función con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción, debido al incumplimiento del contrato por parte del contratista, responderá este de los daños y perjuicios que se produzcan o se manifiesten durante un plazo de quince años a contar desde la recepción.

Asimismo, el contratista responderá durante dicho plazo de los daños materiales causados en la obra por vicios o defectos que afecten a la cimentación, los soportes, las vigas, los forjados, los muros de carga u otros elementos estructurales, y que comprometan directamente la resistencia mecánica y la estabilidad de la construcción, contados desde la fecha de recepción de la obra sin reservas o desde la subsanación de éstas.

Las acciones para exigir la responsabilidad por daños materiales dimanantes de los vicios o defectos prescribirán en el plazo de dos años a contar desde que se produzcan o se manifiesten dichos daños, sin perjuicio de las acciones que puedan subsistir para exigir responsabilidades por incumplimiento contractual.

Transcurrido el plazo de quince años, sin que se haya manifestado ningún daño o perjuicio, quedará totalmente extinguida cualquier responsabilidad del contratista.

53. klausula. Kontratua ezeztatzea

Obra-kontratua ezeztatzeko arrazoi izango dira, Legeak xedatutako arrazoi orokorrez gain, ondorengo hauek:

a) Zuinketa egiaztatzen berandutzea, inolako justifikaziorik gabe.
b) Obren hasiera esekita geratzea, lau hilabetetik gorako epe batez.
c) Administrazioak obrak esekita uztea, zortzi hilabetetik gorako epe batez.
d) Atzera egitea.

Kontratua suntsiarazten bada, proiektuarekin bat etorriz egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatu egin beharko dira, eta kontratistaren alde edo aurka egoki diren saldoak zehaztu beharko dira. Beharrezkoa izango da kontratistari deialdia egitea, kontratazio-espedientean ageri den helbidean, egiaztapen eta neurketaren ekitaldira etor dadin.

Zuinketaren egiaztapena inolako justifikaziorik gabe berandutzen bada, eta horrek kontratua ezeztatzea eragiten badu, kontratistak esleipenaren prezioaren ehuneko 2aren balio bereko kalte-ordain bat bakarrik jasotzeko eskubidea izango du kontzeptu guztiengatik, BEZ kanpo.

Obrak hasi aurretik Administrazioak atzera egiten badu, edo lau hilabetetik gorako epe batez obren hasiera esekita uzten badu, kontratistak eskubidea izango du kontzeptu guztiengatik esleipen-prezioaren ehuneko 3aren kalte-ordaina jasotzeko, BEZ kanpo.

Obrak egiten hasi ondoren atzera eginez gero, edo hasitako obra horiek zortzi hilabetetik gorako epe batez esekita utziz gero, kontratistak eskubidea

Cláusula 53.- Resolución del contrato

Son causas de resolución del contrato de obras, además de las generales de la Ley, las siguientes:

a) La demora injustificada en la comprobación del replanteo.
b) La suspensión de la iniciación de las obras por plazo superior a cuatro meses
c) La suspensión de las obras por plazo superior a ocho meses por parte de la Administración.
d) El desistimiento.

La resolución del contrato dará lugar a la comprobación, medición y liquidación de las obras realizadas con arreglo al proyecto, fijando los saldos pertinentes a favor o en contra del contratista. Será necesaria la citación de éste, en el domicilio que figure en el expediente de contratación, para su asistencia al acto de comprobación y medición

Si se demorase injustificadamente la comprobación del replanteo, dando lugar a la resolución del contrato, el contratista solo tendrá derecho por todos los conceptos a una indemnización equivalente al 2 por cien del precio de la adjudicación, IVA excluido.

En el supuesto de desistimiento antes de la iniciación de las obras, o de suspensión de la iniciación de las mismas por parte de la Administración por plazo superior a cuatro meses, el contratista tendrá derecho a percibir por todos los conceptos una indemnización del 3 por cien del precio de adjudicación, IVA excluido.

En caso de desistimiento una vez iniciada la ejecución de las obras, o de suspensión de las obras iniciadas por plazo superior a ocho meses,

izango du kontzeptu guztiengatik egin gabe geratu diren obren kontratuko esleipen-prezioaren ehuneko 6aren kalte-ordaina jasotzeko industria-mozkinaren kontzeptuagatik, BEZ kanpo, eta egin gabe geratutako obratzat hartuko dira jatorrizko kontratuan islatu diren obrak eta onetsitako horien aldaketak hartu eta, atzera egin izana edo esekita utzi izana jakinarazten den eguneraino egindako obrak aurreko horiei kenduz geratzen direnak.

el contratista tendrá derecho por todos los conceptos al 6 por cien del precio de adjudicación del contrato de las obras dejadas de realizar en concepto de beneficio industrial, IVA excluido, entendiéndose por obras dejadas de realizar las que resulten de la diferencia entre las reflejadas en el contrato primitivo y sus modificaciones aprobadas y las que hasta la fecha de notificación del desistimiento o de la suspensión se hubieran ejecutado.

Obra horiek beste enpresaburu batek edo Administrazioak berak egiten jarraitu behar izanez gero, bai presagatik, bai segurtasun-arrazoiengatik edo, baita ere, eraikitakoa hondatuta gera dadila eragozteagatik, kontratazio-organoak, egindako obren likidazioa kontratistari jakinarazi ondoren, obra horiek egiten jarraitzea erabaki ahal izango du, nahiz eta kontratistak aurka ere egin ahal izango dion egindako balioespen horri, organo horren beraren aurrean. Kontratazio-organoak hamabost eguneko epearen barruan emango du bidezko ebazpena.

Cuando las obras hayan de ser continuadas por otro empresario o por la propia Administración, con carácter de urgencia, por motivos de seguridad o para evitar la ruina de lo construido, el órgano de contratación, una vez que haya notificado al contratista la liquidación de las ejecutadas, podrá acordar su continuación, sin perjuicio de que el contratista pueda impugnar la valoración efectuada ante el propio órgano. El órgano de contratación resolverá lo que proceda en el plazo de quince días.

Kontratua ebazteko arrazoi izango da, halaber, Baldintza Orrietan horrela kalifikatu diren gainerako oinarrizko betebeharrak ez betetzea, arestian aipatutako 31. atalean ere jasoak, ondorengo bi baldintza hauek betetzen direnean:

1. Itunak egiteko askatasunari buruz 34. artikuluaren 1. atalean ezarritako mugak errespetatzen badira.
2. Kontratuaren Ezaugarrien Taulako 31. atalean edo deskribapen-agirian zehatz, argi eta zalantzarik ez sortzeko moduan zenbakituak agertzen badira, eta horri begira, ez da onartuko izaera orokorreko klausularik.

Serán, asimismo causas de resolución del contrato, el incumplimiento de las restantes obligaciones esenciales calificadas como tales en los Pliegos, y recogidas en el citado apartado 31 cuando concurran los dos requisitos siguientes:

1. Que las mismas respeten los límites que el apartado 1 del artículo 34 establece para la libertad de pactos.
2. Que figuren enumeradas de manera precisa, clara e inequívoca en el apartado 31 del Cuadro de Características del Contrato o en el documento descriptivo, no siendo admisibles cláusulas de tipo general.

Kontratua ezeztatzeko arrazoi desberdinak daudenean, eta ezeztatze horrek dituen ondorio ekonomikoen inguruan eragin desberdinak

En los casos en que concurran diversas causas de resolución del contrato con diferentes efectos en cuanto a las consecuencias económicas de la

dituztenean, denboran lehentasunez agertu denari erreparatu beharko zaio.

Kontratua ezeztatzeak ondasunak elkarri itzultzea eragingo du, baita egindako ordainketen zenbatekoa ere, eta ezinezkoa bada edo Toki Erakundearentzat komenigarria ez bada, berak ordaindu beharko du dagoeneko eman direnen eta adostasunez harrera eman zaienen prezioa.

Hornidura eskaintzen hasi aurretik atzera eginez gero, edo horniduraren hasiera lau hilabetetik gorako epe batez esekita utziz gero, Administrazioaren Toki Erakundeari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, kontratistak kontzeptu guztiengatik kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko 3aren kalte-ordaina bakarrik jasotzeko eskubidea izango du, BEZ kanpo.

Hornidura hasi ondoren atzera eginez gero, edo hornidura hori zortzi hilabetetik gorako epe batez esekita utziz gero, kontratistak eskubidea izango du kontzeptu guztiengatik egin gabe geratu diren horniduren kontratuko esleipen-prezioaren ehuneko 6aren kalte-ordaina jasotzeko industria-mozkinaren kontzeptuagatik, BEZ kanpo, eta egin gabe geratutako horniduratzat hartuko dira jatorrizko kontratuan islatu diren hornidurak eta onetsitako horien aldaketak hartu eta, atzera egin izana edo esekita utzi izana jakinarazten den eguneraino egindako hornidurak aurreko horiei kenduz geratzen direnak.

Ezeztatzeko arrazoiak eta horren ondorioak aplikatzerakoan, arestian aipatutakoa gertatu ezean, 2017ko SPKLko 212 eta 213. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

54. klausula. Administrazioaren eskumenak eta Epaimahai eskudunak

2017ko SPKLan adierazitako mugen barruan eta aipatutako betebehar eta ondorioekin bat etorriz,

extinción, deberá atenderse a la que haya aparecido con prioridad en el tiempo.

La resolución del contrato dará lugar a la recíproca devolución de los bienes y del importe de los pagos realizados, y, cuando no fuera posible o conveniente para la Entidad Local, habrá de abonar está el precio de los efectivamente entregados y recibidos de conformidad.

Cuando se produzca desistimiento antes de la iniciación del suministro o la suspensión de la iniciación del suministro por causa imputable a la Entidad Local Administración por plazo superior a cuatro meses, solo tendrá derecho el contratista a percibir, por todos los conceptos, una indemnización del 3 por ciento del precio de la adjudicación del contrato, IVA excluido.

Cuando se produzca el desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a ocho meses el contratista tendrá derecho a percibir, por todos los conceptos, el 6 por ciento del precio de adjudicación del contrato de los suministros dejados de realizar en concepto de beneficio industrial, IVA excluido, entendiéndose por suministros dejados de realizar los que resulten de la diferencia entre los reflejados en el contrato primitivo y sus modificaciones aprobadas, y los que hasta la fecha de notificación del desistimiento o de la suspensión se hubieran realizado.

Para la aplicación de las causas de resolución y los efectos de la misma en defecto de lo antes señalado se estará a lo dispuesto en los artículos 212 y 213 de la LCSP 2017.

Cláusula 54.- Prerrogativas de la Administración y Tribunales competentes

Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP 2017, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de

kontratazio-organoaren eskumena da administrazio-organoak interpretatzea, hori betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik horiek aldatzea, kontratua gauzatzerakoan kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna aitortzea, kontratua gauzatu dadila esekita uztea, ezeztatu dadila erabakitzea eta hori egiteak dituen ondorioak zehaztea.

interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.

Aipatutako eskumen horiekin loturiko erabakiak hartzeko izapidetzen diren prozeduretan kontratistari entzuteko aukera eman beharko zaio.

En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas señaladas, deberá darse audiencia al contratista.

Aurreko hori hala izanik ere, arauzkoa izango da Estatuko Kontseiluaren edo dagokion Autonomia Erkidegoko kontsultarako organo baliokidearen diktamena, honako kasu hauetan:

a) Interpretatu, baliogabetu eta ezeztatzen denean, kontratista horren aurka azaltzen bada.
b) Kontratuan aldaketak egiten direnean, baldin eta baldintza administratibo berezien orrietan aurreikusita ez badaude eta horien zenbatekoa, banaka edo osotasunean hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa bada, BEZ kanpo.
c) Administrazioari erreklamazioak zuzentzen zaizkionean, hark izan dezakeen kontratu-erantzukizunean oinarrituta, baldin eta erreklamatutako kalte-ordainak 50.000 eurokoak edo hortik gorakoak badira.

No obstante, lo anterior, será preceptivo el dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos de:

a) Interpretación, nulidad y resolución, cuando se formule oposición por parte del contratista.
b) Modificaciones del contrato, cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.
c) Reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros.

Kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiek administrazio-bideari amaiera emango diote eta berehala betearaztekoak izango dira.

Los acuerdos que adopte el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

Kontratua interpretatu, aldatu eta ezeztatzearen inguruan eta horrek dituen ondorioen inguruan sortzen diren gai liskartsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta horren erabakiek administrazio-

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación y resolución del contrato, y efectos de ésta, serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán

bideari amaiera eman eta berehala betearaztekoak izango dira; halere, horien aurka berraztertze-helegiteak jarri ahal izango dira horiek xedatu zituen organo beraren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-helegitearen bidez aurka egin, Jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioarekiko auzi-helegitea jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean. Nolanahi ere, interesatuak kontratazio-organoaren aurrean berraztertze-helegitea jartzea aukeratu ahal izango du, eta hala egiten badu, ezingo da jarri arestian aipatutako administrazioarekiko auzi-helegitea, berraztertze-helegite horri buruz berariazko edo ustezko ebazpena ematen den arte (9), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 39/2015eko Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz, interesatuak egoki jotzen duen beste edozein helegite jarri ahal izatearen kaltetan joan gabe.

fin a la vía administrativa, y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser recurridos potestativamente en reposición ante el mismo órgano que los dictó, o ser impugnado mediante recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción.

Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-administrativo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa. No obstante, el interesado podrá optar por interponer recurso de reposición ante el órgano de contratación, en cuyo caso no cabrá interponer el recurso contencioso-administrativo anteriormente citado, en tanto no recaiga resolución expresa o presunta del recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los arts. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de que el interesado pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

55. klausula. Lizitazioa zuzentzen duen dokumentazioaren kontrako errekurtsoen araubidea

Cláusula 55.- Régimen de recursos contra la documentación que rige la licitación

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Dena den, interesdunak berraztertzeko errekurtsoa jar dezake Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean eta, hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharrik, berraztertzeko errekurtsoaren berariazko edo usteko ebazpena egin bitartean, Herri Administrazioen Araubide

Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa. No obstante, el interesado podrá optar por interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en cuyo caso no cabrá interponer el recurso contencioso-administrativo anteriormente citado, en tanto no recaiga resolución expresa o presunta del recurso de reposición, de conformidad con lo

Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoari jarraikiz. Horrek guztiak ez du esan nahi interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzea erabaki ezin duenik.

1. ERANSKINA: EKAB, A artxibo elektronikoan sartzeko.
2. ERANSKINA: Proposamen ekonomikoaren eredua eta C artxibo elektronikoan sartu beharreko formulak.

3. ERANSKINA: azpikontratazioari buruzko eredua. B artxibo elektronikoan sartu beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea

4. ERANSKINA: Azpikontratazioari buruzko eredua, C artxibo elektronikoan sartu beharrekoa

establecido en los arts. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de que el interesado pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

ANEXO 1: DEUC, a incluir en el archivo electrónico A

ANEXO 2: MODELO proposición económica y fórmulas a incluir en el archivo electrónico C.

ANEXO 3: Modelo relativo a la subcontratación. Adscripción de medios personales y materiales a incluir en el archivo electrónico B.

ANEXO 4: Modelo relativo a la subcontratación, a incluir en el archivo electrónico C

2. ERANSKINA: Formula automatikoen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamen ekonomikoaren eta dokumentazioaren eredua, C artxibo elektronikoan sartu beharrekoa.

Jn./And..... helbidea ..... PK ....., NAN zk. ....., telefonoa ..... posta elektronikoko helbidea ..... jarduteko gaitasun juridikoaren jabe izanik, bere izenean (edo .....ren ordezkari gisa, IFK ..... helbidea ....

Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratutako lehiaketa honen berri izanik, hots, **BEASAINGO MUSIKA ESKOLA ERABERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEA.** PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEA, ERREGULAZIO BATERATUAREN MENDE JARRI GABE, hauxe adierazten dut:

1. Hitzematen dut hori burutuko dudala, prezio honekin: .....EURO (letraz eta zenbakiz), gehi BEZari dagokion ..... ko zenbatekoa (letraz eta zenbakiz).
2. Hitzematen dut hori burutuko dudala……URTEKO berme handitze epearekin.
3. Ezagutzen ditut Baldintza Teknikoen Orriak, Baldintza Administratibo Berezien Orriak eta kontratu hau arautu behar duten gainerako agiriak, eta horiek guztiak berariaz onartu eta beteko ditut.
4. Nik ordezkatzen dudan enpresak irekierari, instalazioari eta funtzionamenduari buruz indarreko araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditu.
5. Adierazten dut eskaintza horretan kontuan hartu direla fiskalitatearekin, ingurumena babestearekin, lana babestearekin, genero-berdintasunarekin, lan-baldintzekin, laneko arriskuen prebentzioarekin, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratu eta laneratzearekin eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko jakin bat kontratatu beharrarekin loturik indarrean dauden xedapenetatik datozen betebeharrak, eta horiek guztiak beteko ditudala hitzematen dudala.

.....n, 20..... ko .....aren .....n.
Sinadura

ANEXO 2. Modelo de proposición económica y de documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas automáticas, a incluir en el archivo electrónico C.

D./Dña.....
con domicilio en.....
CP....., DNI nº....., Teléfono.....
Dirección de correo electrónico…….
en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de..... CIF.....
con domicilio en ....

Tras conocer la licitación convocada en la Plataforma de Contratación de Euskadi la licitación para **LA CONTRATACIÓN DE OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LA MUSIKA ESKOLA DE BEASAIN** POR PROCEDIMIENTO ABIERTO, NO SUJETO A REGULACIÓN ARMONIZADA, declaro:

1. Que me comprometo a su ejecución al precio de ……EUROS (en letra y nº) más la cantidad de…… (en letra y nº), correspondiente al IVA.

2. Que me comprometo a su ejecución con una ampliación del plazo de garantía de……AÑOS.

3. Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

4. Que la empresa a la que represento cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento.

5. Manifiesto que en la oferta, se han tenido en cuenta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y protección del medio ambiente, y que me impongo al cumplimiento de todo ello.

En....., a..... de….....de 20.....

Firma

3. ERANSKINA. Azpikontratazioari buruzko eredua. B artxibo elektronikoan sartu beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea.

KONTRATUAREN XEDEA BURUTZEKO HORRETARAKO NAHIKOAK DIREN GIZA BALIABIDEAK ETA/EDO BITARTEKO MATERIALAK ERABILTZEKO EDO XEDATZEKO KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA

Jn. / And. ..... adinez nagusia, eta helbidea ..... duela, PK ....., N.A.N. zk....., telefonoa..... eta e-maila..... izanik, jarduteko gaitasun juridikoaren jabe izanik, bere izenean (edo .....ren ordezkari gisa, horren helbidea ..... izanik, PK....., telefonoa....., eta N.A.N. edo I.F.K (1) zk. .....

ZIURTATZEN DU
Kontratuaren xede diren prestazioak _____ enpresaren helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan daudela, bere estatutuetatik edo fundazio-arauetatik ondorioztatzen den moduan. Halaber, kontratu hori burutzeko, horretarako nahikoak diren ondorengo giza baliabideak edo bitarteko materialak erabiltzeko KONPROMISOA adierazten du:

1. Bitarteko Materialak

1.1 _____
1.2 _____
1.3 _____

2. Giza Baliabideak
2.1 _____
2.2 _____
2.3 _____

Eta horrela jasota gera dadin, **BEASAINGO MUSIKA ESKOLA ERABERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEA** esleitzeko lizitazioan parte hartzeko, eta baldintza-agirietan eta proiektuan xedatutakoarekin bat etorriz, dokumentu hau ematen da,

Beasainen, 202_ko _____aren ___an.
Sinadura

ANEXO 3. Modelo relativo a la subcontratación. Adscripción de medios personales y materiales a incluir en el archivo electrónico B.

DECLARACIÓN RESPONSABLE SOBRE EL COMPROMISO DE DEDICAR O ADSCRIBIR A LA EJECUCIÓN DEL OBJETO DEL CONTRATO LOS MEDIOS PERSONALES Y/O MATERIALES SUFICIENTES PARA ELLO

D / Dña ..... .mayor de edad, con domicilio en..... CP....., D.N.I. nº....., teléfono....., e-mail.....
en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de....., con domicilio en.....
CP....., teléfono....., y D.N.I. o C.I.F (1) nº.....

CERTIFICA

Que las prestaciones que constituyen el objeto del contrato están comprendidas en los fines, objeto o ámbito de actividad de la empresa _____, según resulta de sus estatutos o reglas fundacionales. Asimismo, manifiesta el COMPROMISO de adscribir a la ejecución de dicho contrato los siguientes medios personales o materiales suficientes para ello:

1. Medios Materiales
1.1 _____
1.2 _____
1.3 _____

2. Medios Personales
2.1 _____
2.2 _____
2.3 _____

Y para que así conste, a los efectos de participación en la licitación para la adjudicación del contrato de **LA CONTRATACIÓN DE OBRAS DE REHABILITACIÓN DE LA MUSIKA ESKOLA DE BEASAIN**, y de acuerdo con lo dispuesto en los pliegos y proyecto, se emite el presente documento en

Beasain, a _____ de _____de 2.02_.

Firmado

4. ERANSKINA. Proposamen teknikoaren eredua. Azpikontratazioari buruzko informazioa. (C artxibo elektronikoa)

Jn./And..... helbidea ..... PK ....., NAN zk. ....., telefonoa ..... posta elektronikoko helbidea ..... jarduteko gaitasun juridikoaren jabe izanik, bere izenean (edo .....ren ordezkari gisa, IFK ..... helbidea ....
Karatulako 21. atalean eta SPKLren 215. Artikulua

DEKLARATZEN DUT

Ordezkatzen dudan enpresak, esleipendun izanez gero, partida hau (k) azpikontratatuko dituela:

PROPOSATUTAKO AZPIKONTRATAZIOA JUSTIFIKATZEKO TAULA						
Azalpena	**Enpresa**	**Enpresa-profila**	**Zenbatekoa €**	**Guztizko zenbatekoarekiko %**	Baliabideen dedikazioa edo atxikipena	
					Pertsonalak	Materialak eta/edo makineria
		GUZTIRA				

Beasainen, 202_ko _____aren ___an.
Sinadura

ANEXO 4. Modelo de propuesta técnica. Información relativa a la subcontratación. (ARCHIVO ELECTRÓNICO C)

D / Dña ..... .mayor de edad, con domicilio en..... CP....., D.N.I. nº....., teléfono....., e-mail.....en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de....., con domicilio en.....CP……....., teléfono....., y D.N.I. o C.I.F (1) nº..... Que de conformidad con lo dispuesto en el apartado 21 de la carátula y art. 215 de la LCSP

DECLARO

Que la empresa a la que represento, caso de resultar adjudicataria, subcontratará la(s) siguiente(s) partida(s):

TABLA JUSTIFICATIVA DE LA SUBCONTRATACIÓN PROPUESTA						
Concepto	**Empresa**	**Perfil empresarial**	**Importe €**	**% r. Imp total**	Dedicación o adscripción de medios	
					Personales	Materiales y / o Maquinaria
		TOTALES				

Beasain, a _____ de _____de 2.02_.

Fdo.